

# BOOK TUBER BOOM

## EAEko III. Booktuber Lehiaketa

-OINARRIAK-

**EAEko Liburutegi Sareak, Galtzagorri Elkartearekin batera, *Booktuberboom* lehiaketa antolatu du gazteen artean ikus-entzunezkoen bidez irakurketa sustatzeko helburuarekin. 14-18 urte bitarteko gaztea zara? Youtuben ibiltzea atsegin duzu? Misio bat eman nahi dizugu: aurkitu zure gustukoa den liburu bat eta irakurri; bideo labur baten bidez liburu hori gomendatu eta youtuben zintzilikatu. Zu bezalako irakurle gazteak erakartzea lortuko duzula uste duzu? Hala bada, zurea da *Booktuberboom* lehiaketa! Zatoz eta parte hartu!**

## Epea

2019ko azaroaren 29a, 12:00ak arte.

## Nork har dezake parte?

14-18 urte bitarteko gazteek. Beharrezkoa izango da liburutegi publiko bateko bazkide txartela izatea.

## Zer egin behar da?

Liburu bat irakurri, hartu kamera, mugikorra edo tableta eta grabatu liburu horri buruzko iruzkinaren bideoa. Argitaratu zure Youtube kanalean, zure herriko liburutegikoan edo zure ikastetxeko kanalean, eta bete [Booktuberboom blogeko](#) parte-hartze orria. Bertan jarri beharko duzu zure bideoak youtuben duen URL helbidea.

## Nolako baldintzak bete behar ditu bideoak?

- Gazte nahiz helduentzako **euskaraz argitaratutako liburu bati buruzkoa** izan behar du.
- Booktubea **euskaraz** egin behar da. Ez dago euskara batuan egin beharrik, euskalki guztiek dute lekua lehiaketan, baina euskara zuzen eta egoki erabili beharko da.
- Iraupena: **gehienez 2 minutuko iraupena** izan behar du eta **gutxienez minutu 1ekoa**.
- Aurrez beste **inon argitaratu gabeko bideoa** izan behar du.
- Youtuben argitaratu eta *Booktuberboom* blogeko **parte-hartze formularioa betez bidali beharko da bideoaren URL-a** lehiaketara **2019ko azaroaren 29ko 12:00ak baino lehen**.
- Ezin da bideo honekin beste lehiaketa batean parte hartu.
- Bideoak oinarriko eskubide eta askatasunekin koherentea izan behar du, pertsonen duintasuna eta adin txikikoen eskubideak errespetatu behar ditu.
- Horrez gain, indarrean den araudia bete behar du, hortaz, ezin dira urratu hirugarrenen eskubideak, bereziki jabetza intelektualarena, ohorearena, pertsonaren eta familiaren intimitatearena eta norberaren

irudiarena, ezta hirugarrenen datu pertsonalen erabilerari dagokiona ere.

## Egileak

Bideoak parte hartzaileek beraiek egindakoa izan beharko du. Jabetza intelektualaren eskubideak lehiaketako parte hartzaileenak izango dira osorik. Bideoan egile batek baino gehiagok parte hartu badu, egileetako baten izenean bidaliko da, baina izen-emate orrian gehiago direla aipatuz.

## Gurasoen baimena

Bideoan agertzen diren pertsonen irudi eta datuak argitaratu ahal izateko, adinez txiki diren parte hartzaileen kasuan, derrigorrezkoa izango da [gurasoen baimen sinatua](#) eskuratzea. Haiak onartu eta baimendu beharko dute beren seme-alaben irudia agertzen den bideoa lehiaketa honetan erabiltzea eta horri dagozkion blog, web gune eta sare-sozialetan argitaratzea. Baimen eskaera bideoa jaso ondoren egingo zaio lehiakide bakoitzari emailaz. Baimena bidaltzen ez duten partaideen booktubeak ez dira lehiaketako kanalean argitaratuko eta ez dira lehiaketan sartuko.

## [Gurasoen baimena](#)

## CC lizentzia askea

Bideoak Creative Commons (**Aitortu-Ez Komertziala-Partekatu Berdin**) lizentziarekin argitaratuko dira youtuben. Lizentzia horrek beste erabiltzaileei bideoa berdin partekatzeko aukera emango die, beti ere jatorrizko egilea nor den aitortuz eta helburu ez komertzialekin egiten bada. Lizentziari buruzko informazio gehiago eta youtuben hori nola ezarri ulertzeko azalpenak: blogean (euskaraz), edo <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/2.5/> helbidean ingelesez.

## Bideoen hedapena

Lehiakideek aurkeztutako bideoak antolatzaileen komunikazio sareetan egon daitezke ikusgai: EAEko Liburutegi Sarearen eta Galtzagorri Elkartearen komunikazio digitalerako sareetan. Horrez gain, EAEko Liburutegi Sareko liburutegietako informazio pantailetan ere ikusi ahal izango dira, eta, *Booktuberboom* blogean ere ikusgai egongo dira, noski.

Halaber, behar izanez gero, parte hartzaile sarituei artxibo originala eskatu ahal izango diete antolatzaileek.

## Sariak

Bi motatako sariak banatuko dira (ikusi [Sariak](#) atala):

- **Epaimahaiaren saria: Go Pro kamera + 80 euroko bonua liburuak erosteko**
  - Aurkezten diren booktube guztien artean onena hautatuko du hiru adituk osatutako epaimahaiak. Diskurtso narratiboa, kalitate teknikoa, originaltasuna eta ikuslea erakartzeko gaitasuna hartuko dira kontuan.
- **Publikoaren saria: abentura txango bat + 80 euroko bonua liburuak erosteko**
  - Lehiaketara aurkeztutako bideoen artean, abenduaren 14eko 12:00ak arte "gustatzen zait" gehien jasotzen dituen booktubearentzat.

**\*Oharra:** zure bideoa ez baduzu publiko zabalaren aurrean bistaratzerik nahi, pribatua izatea nahi baduzu, epaimahaiak bakarrik ikusi ahal izango du eta ez duzu publikoaren saria eskuratzeko aukerarik izango.

**Epaimahaia:** Epaimahaia bi adituk osatuko dute.

## **Irabazleak**

Lehiaketan parte hartzeko azken egunetik (azaroak 29) aurrera, hogei eguneko epean, abenduak 13ean, jakingo da irabazleak nor diren. 5 eguneko epean irabazlearekin harremanetan jartzetik ez badute lortu antolatzaileek, saria bigarren geratu den booktuberrak jasoko du, eta hori ere agertzen ez bada, modu berean egingo da segidakoekin ere.

Sariak urte amaieran egingo den azken Kedadan banatuko dira. Kedada hori izango da sariak banatu eta parte hartzaileak elkar ezagutzeko hitzordua. Sarituek euren NAN txartela edo Liburutegiko txartela erakutsi beharko dute identifikazio gisa, eta heldu batekin etorri ahal izango dira ekitaldira.

## **Irudi eskubideak**

Parte hartzaileek baimentzen dute euren izen-abizenak eta irudia lehiaketarekin zerikusia duen edo horri buruzko informazioa ematen duten edozein hedabidetan, nahiz EAEko Liburutegi Sarearen eta Galtzagorri Elkartearen komunikazio sare digitaletan argitaratzea. Baita lehiaketa honetan sor daitezkeen hurrengo edizioetan erabiltzeko ere. Baimen honen truke antolatzaileak ez dira ordainsari bat ematera behartuta egingo.

## **Bertan behera edo saria hutsik**

Lehiaketak behar bezala aurrera egiteko zailtasunak izango balitu, EAEko Liburutegi Sareak eta Galtzagorri Elkartek bertan behera uzteko eskubidea izango dute. Halaber, saria hutsik gera daiteke lehiakiderik ez delako aurkeztu edo parte-hartze baldintzetakoren bat bete ez delako. Ez da antolatzaileen ardura izango parte hartzaileen datuen egiazkotasuna ziurtatzea. Hortaz, datuak ez badira zuzenak eta guztiz osaturik ez badaude, parte hartzailearen ardura izango da antolakuntzak berekin harremanetan jartzeko modurik ez izatea, eta saria galtzeko arriskua ez saihestea.

## **Oinarriak onartzea**

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar. EAEko Liburutegi Sareko web gunean eta lehiaketaren blogean egongo dira argitaratuta.